

Seferis gure artean

Greziako kulturaren distira iraganean hondoratuta geratu zela pentsatu ohi dugu askotan, baina XX. mendean ernaldi moduko bat izan zuen herrialde heleniarrak

ARITZ GORROTXATEGI

Greziako kultura aipatzen dugunean, iragane-ko kontuak etortzen zaizkigu burura ia beti. Antzinate Klasikoa, Grezia klasikoa... Greziako kulturaren distira iraganean hondoratuta geratu zela pentsatu ohi dugu askotan, baina XX. mendean ernaldi moduko bat izan zuen herrialde heleniarrak, batez ere mende erdialde inguruan: Kavafis, Kazantzakis, Mikis Theodorakis, Irene Papas, Cacoyannis, Elytis, Ritsos, Seferis... Berpizkunde bati buruz hitz egin daiteke akaso, eta sortzaile horietako askok harremanak izan zituzten beren artean, elkar elikatu zutela esan daiteke.

Garaia ez zen batere lasaia izan; justu kontrakoa: 1919-1922an turkiarren aurkako gerra eta Pontoko greziarren genozidioa; Ioannis Metaxasen estatu kolpea

eta diktadura; Italiaren aurkako gerra eta nazien inbasioa; askapenaren osteko gerra zibila (komunisten eta antikomunisten artekoa); 1967ko koronelen diktadura... Aro klasikoak, halaber, izan zuen zerikusia garai iskanbilatsu eta latz hartan berpiztutako loraldiarekin. Izan ere, sortzaile horietako askok iragan klasiko horrekin zuten lotura landu zuten beren sormen-lanetan. Iragan hori berreskuratu nahian dabilta batzuk, hartatik aldendu nahian beste batzuk. Ondare horren ondorengo zuzenak izatea zama ere bihur daiteke... Batzuetan, badi-rudi klasikoek lur guztia erre zutela, dena esan zutela, eta atzetik datozenak oin-oharrak baino ez direla.

Giorgos Seferis belaunaldi hartako poetarik handienetakoa da, eta erdibide moduko bat aukeratu zuen: klasikoekin elkarriket-

tari berrekin zion, baina gaurkotasunari eta modernotasunari zirrirituak bilatuz. Dena zen etenik gabeko segida bat berarentzat, antzinako Greziaren eta bere garaikoaren artean. «Daukadan argi eta iluntasun guztiarekin begiratzen zintudan», dio bere bertsoetako batean, eta esan dai-teke argi-ilun horien bila abiatu zela. Literatur Nobel Saria jaso zuen lehen greziarra izan zen (1963). Haren ondotik Odysseus Elytisek jaso zuen. Berdin-berdin jaso zezaketen Ritsosek edota Kazantzakisek. Duela gutxi hel-du zaigu liburu formatuan euskaraz, Susa argitaletxearen Munduko Poesia Kaiaren bildumaren barruan, Maite Lopez Las Herasen itzulpen bikainean. Seferis Izmirren jaio zen 1900. urtean, Turkiar inperioaren mugen barruan. Arestian aipatutako gatazkaren ondorioz, sorterritik alde

egin behar izan zuen, eta, geroztik, poesiaren eta burokrazia diplomatikoaren artean banatu zuen bere bizitza, erbestearen eta sormenaren artean. Biziki maite izan zituen T. S. Eliot, Valery, Pound edota Mallarmé bezalako poetak (Kavafis bera ahaztu gabe), eta garaiko hainbat idazlerekin harremanak izan zituen. 'Marusiko kolosoa' bidaia-liburuan (1941) Henry Millerrek honela definitu zuen gure poeta: «Giorgos Seferis da Grezian nonahi dagoen betierekotasun izpiritua bere

Berpizkunde horren sortzaileetako askok harremanak izan zituzten beren artean

poemetan harrapatu eta transplantatzeko gai den gizona». Eta honela dio aurrerago: «Seferisek lekuz leku eraman nau medusa elektrizatu batek bezala. Bere begirada etorkizunera edo iragane-ra proiektatzeko modu berezia du, eta kontenplazio-objektua birarazteko gai da, haren alderdi anitzak erakutsiz». Seferis poeta kriptikoa da, sinbolismora jotzen duena. Bitxiki, herri hizkera edo 'dimotiki glosa' deritzona erabili zuen bere poesia mamitzeko. Bere poetikaz gako batzuk ere eman zituen han-hemenka, batez ere 'Egunak' izenburuko bere kaieretan: «Zehaztasuna edertasuna da. Dena sakrifika dezagun, zehaztasuna izan ezik (...) Desinfektatzaile indartsuz garbitu ditzagun aitorpen pertsonalaren poesia, ilunabarra, harridura malenkoniatsua, mikrobio subjektibo horiek guztiak».

1946an, berriz, honako hau idatzi zuen: «Gaur ulertu dut zergatik zen Homero itsua, begiak osasuntsu izan balitu, ez zukeen ezer idatziko. Gaixoa zu, Grezian denbora guztian ikusi nahi bazu; diafragma itxi behar da, argazkian bezala. Argi eta zauri hori zeruaren eta infernuaren ezkontza dira». Argi-ilunak berriro ere. Eta itsasoa, ontziak, pinuak, estatuen hondakinak, hiri modernoak, mitoak, orotariko odiseak, adar biko autobideak... Hori guztia eta askoz gehiago.



Eman hegoak euskarari



Distopia ez hain urruna

AIORA SAMPEDRO

Abiapuntua zera da: 2026-2040 urteetan zehar Euskal Herria mundu distopiko baten murgildu da zeinetan, etorkizuneko klima edota migrazio erronkei aurre egin ezin dien mendebaldeko gizartearen ondorioz, gaur egungo harreman politikoak gaiztotu diren. Hartara, ETA Berri deituriko erakundea antolatu dute gazte abertzale batzuek, Espainiar estatuan eskuin muturrak bozka irabazi eta administrazioa zentralizatu du eta lehendakaritza erbesterratu egin behar izan da.

Elkar argitaletxeak Ateko bandan sailean argitara ematea erabaki du Iñaki Petxarromanen 'Lehendakariaren alaba' eleberrria. Sail horretan argitaratzen ditu eleberri beltzak edo polizia-koak deritzenak eta kasu hone-tan, thriller politiko baten zantz-ak dituen nobela osatu du kazetari eta idazle lasarte-arrak. Hala ere, lanaren generoa zehaztea ez da hain sinplea, kontakizuna korala baita eta lehendakari protagonistaren inguruko lauzpabost emakumeren ahotsak

biltzen dira kontakizuna garatzen den bi hamarkadetan zehar: lehendakariarena, haren alabarena nahiz ETA Berri erakunde-
dean sartutako beste alabarena, eta erakunde-
an infiltratutako haren polizia amo-
rantearena, besteak beste. Thriller poli-
tiko baten elementuak izanik, testigan-
tzara ere bideratzen da.

Iruditu zait kazetariaren pentsakizunak, balorazioak, hala nola, euskal armagabete prozesuaren ingurukoak, gain hartzen diola zenbaitetan fikzio-aren tramari: «zauriak, ondo itxi ezean, berriz ireki daitezke-
ela esan ohi dugu» alarmara-
ko deia izanik liburuan zehar errepikatzen den mantra. Hau da, euskal gatazkaren zauriak ez direla ondo itxi eta horrek, etorkizunean eragina izan due-
la du kontatzen den beste guz-
tiaren oinarri kontakizunak. Na-
barmentzekoa da, halere, ha-
sieratik amaieraraino kateat-
zen zaituen erritmo biziko kon-
takizuna dela. Egileak asma-
tea du kontakizun partzialarekin misterioa mantentzea, bere aurreko ele-
berrietan egin antzera.



**LEHENDAKARI-
AREN ALABA**
IÑAKI
PETXARROMAN
GUTIERREZ

Elkar,
192 or
20 euro

Zahar baten gaitasuna

ARANTXA
URRETABIZKAIA



Gogoan dut, gure semea txikia zela, batzuetan, etxetik ateratzerakoan gugandik hurbil bizi zen edadeko gizon batekin egiten genuela topo. Gizona erretiratua zegoen eta lan bizitzaren azken urteetan kargu ospetsua izan zuen, agintzera ohitua zegoen. Bada gizon hori hurbiltzen zitzaigun eta konta-kontari eten bati ekiten zion. Ezin ihes egin modu doto-
rean gizonaren kalakari.

Halako batean, gizona hurbiltzen ari zitzagula ikusi nuenean, semeari esan nion minutu gutxiren buruan has zedila niri galtzetatik tira egiten, nire arreta modu nabarmenean eskatzen, mainak

eta guzti. Kostata ulertu zuen, azkenean, zer zen eskatzen niona, ordurarte egin zuenaren kontrakoa zelako. Esan nion bestela gizonak ez zigula utziko egin behar genuena egiten.

Ume gutziatsurena egin ondoren abiatu ginen gure zereginetara. Orduan esan nion inoiz, etorkizunean, edadeko gizonak gurekin egiten zuena ni beste batzuekin egiten hasten nintzela ikusten bazuen, mesedez eta faborez, abisua eman behar zidala, norbera izan daitekeelako ohartzen azkena.

Azken egunotan Bidenekin gertatzen ari dena ikusterakoan etorri zait gogora pasadizo hori. Estatu Batuetako presidentek hauteskunde giroko eztabaida batean zalantza azaldu zela, haria ezin aurkiturik, tarteka noraezean eta mundu guztia hasi da Bidenen osasun mentala aztertzen, zaharregi dela esaten. Arazoa ez litzateke inoiz adina izango, adinarekin batzuetan gerta daitekeen galera baizik.

Ez naiz nor erabakitze-ko zein den gaur Bidenen osasun mentala. Baina debate hartan gertatutakoa errepikatuko balitz, norbaitek esan behar lioke gizonari hobe duela atzera egin, hobe duela postua beste norbaiten esku utzi. Aldameneko norbait, maitasunez eta zintzoki hitz egingo lukeen norbait. Ondoren, noski, pertsona horrek esandakoa aintzat hartu beharko luke Bidenek.